

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia, 2021. urtean kirol-programak egiteko

2021. urtean kirol-programak egiteko diru-laguntzen deialdi hau Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du 2021eko uztailaren 23an.

Kirol-jarduera horiek batera finantzatzeko laguntzak diru-laguntza gisa emango dira, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatu eta araututakoaren, 2021eko martxoaren 10ean 28 zenbakiko ALHAO-an argitaratutako Diru-laguntzen udal-ordenantza arautzailearen eta aplikatu beharreko legeria osagarriaren mende egongo dira.

LEHENENGOA. Xedea.

Deialdi honen xedea da Laudioko Udalak Kultura, Kirol eta Jaietako Zerbitzuaren bidez ematen dituen diru-laguntzak ematea, norgehiagoka-araubidean. Laguntza horiek Laudion kirol-jarduerak eta -programak antolatu, garatu eta gauzatzeko eta kirol-jarduerak tokiko klub eta kirolariei dakartzkien gastuak finantzatzeko izango dira.

Xede hori lote hauetan zehaztuko da:

1. 1. lotea: kirola modu federatuan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzak.
2. 2. lotea: ikastetxeen eskola-kirolerako diru-laguntzak.
3. 3. lotea: dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten kirol-elkarte eta klubentzako diru-laguntzak.
4. 4. lotea: Laudion kirol jarduera puntualak antolatzeko diru-laguntzak.
5. 5. lotea: igoera- edo sailkapen-faseetan edo Laudiotik kanpoko txapelketetan parte hartzen duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzak (50 kilometro baino gehiagoko joan-etorriak).
6. 6. lotea: kirolarientzako joan-etorrietarako beka.

Lehia askeko deialdietan ez dira diruz lagunduko udal aurrekontuan zuzeneko diru-laguntza edo diru-laguntza izenduna emateko aurrekontu-aplikazio ekonomikoa duten egintzak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak deialdi honen arabera diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak izango dira:

Federakuntza-gastuak.

Arbitrajeen ondoriozko gastuak.

Inbentariagarria ez den kirol-materialaren gastuak.

Kirol-ekipamenduen gastuak.

Txapelketak antolatzeko gastuak.

Joan-etorrien gastuak.

Jardueraren komunikazio-gastuak.

Diru-laguntzak izapidetzen laguntzeko gastu profesionalak.

Diruz lagundutako jarduerari zuzenean lotutako beste gastu batzuk.

Inola ere ez dira diruz laguntzeko modukoak izango deialdi honen zazpigarren puntuan jardueraren defizita kalkulatzeko baztertzen direnak.

Era berean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko, inola ere, inolako isun eta errekaru, edari alkoholduak, tabakoa eta antzekoak erostea, ezta diruz lagundutako jardueraren helburuetarako ezinbestekoak ez diren gastuak ere.

BIGARRENA. Aurrekontuaren erabilgarritasuna eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi honen bidez emandako diru-laguntza guztien guztizko zenbaketak ezingo du inoiz gaintitu Laudioko Udalaren aurrekontuan aurreikusitako 64.583,00 euroko zenbatekoa. Zenbateko hori lote hauetan banatuko da:

1. 1. lotea: 45.715,00 euro kirola modu federatuan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzetarako (lote horretatik kanpo geratzen dira urteko diru-laguntza izenduna izapidetzen zaien klubak).

2. 2. lotea: 3.642,00 euro, ikastetxeetako eskola-kirola diruz laguntzeko.

3. 3. lotea: 920,00 euro, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzetarako.

4. 4. lotea: 3.643,00 euro Laudion kirol jarduera puntualak antolatzeako diru-laguntzetarako.

5. 5. lotea: 8.235,00 euro, igoera- edo sailkapen-faseetan edo Laudiotik kanpoko txapeletan parte hartzen duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzetarako. Diru-laguntza horietan, klub eta urte bakoitzeko jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 5.000 eurotik gorakoa izango.

6. 6. lotea: 2.428,00 euro kirolarientzako joan-etorrietarako beketarako. Diru-laguntza horietan, jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz 1.200 eurotik gorakoa izango kirolari bakoitzeko, edo kopuru hori klub berean militatzen duten kirolarien kopuruaz zatituta ateratzen den zenbatekoa baino handiagoa.

Loteren bat hutsik geratzen bada edo esleitutako zenbateko osoa banatzen ez bada, Balorazio Batzordeak zehaztuko du banatu gabeko kopuruaren xedea.

Deialdi honetako gastua Laudioko Udalaren 2021ko Aurrekontuaren kargura egotziko da honako partida hauetan:

- 64.583,00 euro, 0600 3411 48100 "kirol diru-laguntzak" partidaren kontura.

HIRUGARRENA. Erakunde eta pertsona onuradunak.

Onuradun izango da, maila indibidualean edo kolektiboan, jarduera sustatzen eta egiten duen pertsona edo erakunde oro.

- 1. loteko ("kirola federatuta egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzak") laguntzak eskuratu ahal izango dituzte udal-aurrekontuetan diru-laguntza izendun bat jasotzeko partidarik ez duten herriko kirol-klub eta -elkarteek, kategoria horietako batean urteko federazio-jarduera jasotzen duena.

- 2. loteko ("ikastetxeentzako diru-laguntzak") laguntzak Laudion ezarritako ikastetxe publiko edo pribatuek eskuratu ahal izango dituzte, edo haien izenean legez eraturako gurasoen elkarrekin.

- 3. loteko ("dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzak") laguntzak eskuratu ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabe eraturako kirol-elkarte eta -erakunde publiko edo pribatuek, dibertsitate funtzionala duten pertsonak integratzea helburu dutenak.

• 4. loteko laguntzak (“diru-laguntzak Laudion kirol-jarduerak antolatzeko”) eskuratu ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako federazioetako federazio-lizentzia duten kirolariek banaka edo klubek bidez kirol-txapelketa edo -proba bat antolatzen duten subjektu indibidual edo kolektibo orok. Eskola-kiroleko kirol-probak ere diruz lagundu ahal izango dira atal honetan.

Atal honetan, ezin izango da diruz lagundu klubek beren kategoriaren arabera jokatzeko dagoen torneoen, ligen eta kopen barruan jokatzeko dituzten partidak antolatzea, ez eta beheragoko kategorietako taldeekin egiten dituztenak ere.

• 5. loteko laguntzak eskuratu ahal izango dituzte (“diru-laguntzak kirol-elkarte eta -klubentzat, Laudiotik 50 kilometro baino gehiagora dauden herrietan igoera-, sailkapen- edo torneo-faseetan parte hartzeko”): kirola federatuta egiten duen edozein kirol-elkarte edo -klub edo txapelketa Laudiotik kanpo.

• Laudion erroldatutako kirolari federatuek 6. loteko (“kirolarientzako lekualdatze-beka”) laguntzak jaso ahal izango dituzte, baldin eta gure udalerritik kanpoko klubetan ari badira, kirol-modalitate hori ez dutelako edo tokiko klubak uste duelako ezin diotela beren kirol-mailari irtenbiderik eman. Ezingo dute laguntza hau jaso 24.000,00 eurotik gorako diru-sarrerara gordinak dituzten kirolariek, ezta kirol-jardueragatik soldata bat kobratzen dutenek ere.

Onuraduna erakunde juridikoa denean, lehenengoaren izenean eta haren kontura diru-laguntzaren oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duen kide elkartu oro ere onuraduntzat joko da.

Ezin izango dira onuradun izan Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean baztertzeko arrazoiren bat duten pertsonak edo erakundeak.

Pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteak direnean, berariaz jaso beharko dira, bai eskabidean bai emakidaren ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Kasu horretan, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen. Elkarteak ezin izango da desegin, harik eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte (2003/2684 LBK).

Gainera, ikastetxeek, elkarteek eta kirol erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Egoitza soziala Laudion izatea eta jarduera osoa edo zati bat udalerritik kanpo egitea.
- Legez eraturik eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.
- Laudiko Elkartearen Udal Erregistroan izena emanda egotea.
- Bere programak eta aurrekontuak botere publikoaren kontrolpean jartzea.
- Gobernu-organoen osakeran eta funtzionamenduan barne-demokrazia dagoela bermatzea.

Diruz lagundutako jarduera egitea erakunde onuradunaren betebeharrak dira. Aurrekoaren ondorioz, jarduera nagusiaren osagarri diren eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren jarduerak baino ezin izango dira azpikontratatu, diru-laguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 20 gehienez izanda.

Pertsona fisikoen kasuan, Laudion erroldatutako pertsona fisikoek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak.

LAUGARRENA. Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak.

Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea edo diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.

b) Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan ezarritako arauak behar bezala betetzea, bai eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintza bereziak ere.

c) Laudioko Udalak emandako diru-laguntzak justifikatu izana, aurreko deialdiei dagozkienak eta edozein jarduera-arlo edo -motari dagozkionak.

d) Proiektua edo jarduera antolatzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzea eta erantzukizun hori bermatuko duten aseguru-polizak sinatzea, bai eta diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimenak lortzea ere.

e) Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzea (17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duena), bai eta kasuan kasuko jarduera-eremuan aplikagarria den gainerako araudia ere, estatukoa, autonomikoa, forala edo tokikoa.

f) Emandako zenbatekoari emandako enpleguaren justifikazioa egitea, udal-ordenantzaren eta deialdi honen arabera.

g) Egiten diren sustapen-elementuetan sartzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzea, inbertsioek edo jarduerak Laudioko Udalaren laguntza ekonomikoa dutela. Zehazki, "Babeslea: Laudio Udala" edo "babeslea: Laudio Udala/Patrocina: Ayuntamiento de Llodio" testua sartu beharko dute, udalerriko anagrama edo armariarekin, diruz lagundutako programaren kartel, argazki edo bestelako komunikazio grafiko guztietan. Publizitate horretarako espazioa, gutxienez, beste publizitate batzuetarako erabiltzen den neurri berekoa izan beharko da (beste diru-laguntzak edo ekarpen ekonomikoa udal honek emandakoak baino handiagoak direnean izan ezik). Era berean, finantzaketaren izaera publikoaren berri emango da ikus-entzunezko baliabideen eta megafoniaren bidez propaganda erabiltzen denean. Gainera, kartel eta publizitate orok kontuan izan beharko du 2010eko azaroaren 29an Udalbatzak onartutako Euskararen Erabilera Arautzeko Udal Ordenantzan ezarritako hizkuntza-tratamendua. Ordenantza horren 21. artikulua honako hau dio: "Laudioko Udalak diruz lagundutako kultura-, kirol- edo jolas-jarduerak euskararen presentzia bermatua izan beharko dute publizitate-euskarrietan. Gauza bera gertatuko da publizitatea ahozkoa denean".

h) Era berean, Udalak diruz lagundutako jardueren publizitatean arreta berezia jarriko da, bai hizkuntzari dagokionez, bai jarduera horiek sexistak ez diren erabilitako irudiei dagokienez.

i) Helburu bererako beste edozein laguntza ekonomiko lortu dela jakinaraztea, dela publikoa, dela pribatua, betiere jasotako zenbatekoa berariaz adierazita. Jakinarazpen hori ezagutu bezain laster egin beharko da, eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.

j) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea, eta kasuari buruz eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ematea.

k) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

l) Emandako diru-laguntza behar bezala justifikatzen dela bermatzeko, hala eskatuz gero, pertsona juridikoek edo erakunde laguntzaileek eraman behar dituzten kontabilitate-liburu eta -erregistro espezifikoak aurkezteko betebeharra, merkataritza-legeriak eskatzen duen moduan.

m) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.

n) Laudioko Udalarekin lankidetzan aritzea, eskatuz gero, diruz lagundutako jarduerari buruzko azterlanak, inkestak edo estatistikak egiteko.

o) Jasotako funtsak itzultzea, itzultzeko legezko arrazoiak daudenean eta, bereziki, erakunde onuraduna desegin denean, emandako diru-laguntza osorik edo zati batean erabili ez denean edo emandako laguntza diruz lagundutako proiektuan edo jardueran aurreikusitako helburuetarako erabili ez denean.

p) Beharrezkoak diren neurriak hartzea edozein diskriminazio saihesteko, hala nola sexuatik edo beste mota bategatik. Era berean, udal-eskumenak osatzen edo ordezten dituzten onura publikoko edo gizarte-intereseko ekimen eta jarduera guztietan emakumeen eta gizonen sarbidea eta partaidetza orekatua sustatzea.

BOSGARRENA. Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta eskabide normalizatuan eta udaletxeko herritarren arretarako zerbitzuan (beheko solairua) aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduan.

Eskabide-orri normalizatuarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskabidea sinatzen duen pertsonaren NANA, bere izenean edo elkarte edo erakunde baten ordezkari gisa jarduten duelako. Eskabidea elkarte edo erakundearen ordezkari gisa legez agertzen dena ez den beste pertsona batek egiten duenean, legezko ordezkariak sinatutako baimen bat aurkeztu beharko da, sinatzaileari elkartearen edo erakundearen izenean jarduteko baimena emanez (eta, kasu horretan, baimen-emailearen NANaren fotokopia bat erantsi beharko da).

2. Elkarte edo erakunde eskatzailearen IFZ (eskaera elkarte edo erakunde baten izenean egiten denean).

3. Diru-laguntza berariaz onartzen dela (uko eginez gero, berariaz eta arrazoituta aurkeztu beharko da, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epean), eta eskatutako helburua, proiektua edo jarduera gauzatzeko erabiliko dela diru-laguntza adierazten duen zinpeko aitorpena.

4. Laudioko Elkartearen Udal Erregistroan alta emanda ez badago, bertan inskribatzeko eskabidea aurkeztu beharko da. Eskaera horrekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: erakundearen estatutuen fotokopia, legez eraturta eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria, eta IFZ egiaztatzen duen agiria (eskaera elkarte edo erakunde baten izenean egiten denean).

5. Pertsona edo erakunde eskatzailearen izenean dagoen banku-kontuaren zenbakia, diru-laguntzaren ordainketa izapidetzeko.

6. Honako ziurtagiri edo zinpeko adierazpen hauek aurkeztea:

- Ordainduta izatea Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-be-tebeharrak, bai eta itzulketagatik eta zuzenbide publikoko gainerako zorreatatik ere (eskaera elkarte edo erakunde baten izenean egiten denean).

- Ez egotea Udal Ordenantzan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean onuradun izateko ezarritako debekuetan.

Udalak, egoki iritziz gero, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

7. Diru-laguntzaren xede den programarako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei laguntzak emateko eskaerei buruzko zinpeko adierazpena, bai eta horiek lortu diren edo ez jakin bezain laster Laudioko Udalarari nahitaez jakinarazteko konpromisoa ere, diru-laguntza doitzeko, hala badagokio.

Administrazioaren esku dauden dokumentuak aurkezteko eskaera egingo da, soilik, Udalak ez baditu eskura.

1. lotetik 5.era bitarteko loteetarako, gainera, dokumentazio hau aurkeztuko da:

1. Diru-laguntzaren xede diren jardueren programa, honako hauek barne:

- Jarduera horien helburuak.
- Horietako bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena.
- Norentzat izango den jarduera eta zenbat pertsona izango diren onuradun.
- Jarduerak gauzatzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak edo portaerak.
- Euskararen erabilera.

2. Diru-laguntzaren xede diren jardueren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko diruz lagun daitezkeen gastuei bakarrik erantzuteko.

3. Laudiotik kanpo dagoen txapelketa, txapelketa edo antzeko batean parte hartzeagatik 5. loterako diru-laguntza eskatzen bada, antolatzaileek egindako gonbidapen-idazkia aurkeztu beharko da.

6. loterako, gainera, dokumentazio hau aurkeztuko da:

1. Laudion egindako kirol-modalitateko klub bat badago, eskatzaileak beste udalerrri batean militarra izatea komeni dela adierazten duen ziurtagiri arrazoitu bat egin beharko du, eskatzailea kirol-arloan garatzeko.

2. Kirolaria kide den klubaren ziurtagiria, urteko entrenamendu-egun kopuruari buruzkoa (asteko egun kopurua, denboraldiko aste kopuruaren arabera).

3. Kirolaria kide den klubaren ziurtagiria, inolako dietarik edo soldatarik kobratzen ez dutela adierazten duena.

4. Urteko diru-sarreraren ziurtagiria.

SEIGARRENA. Balorazio-irizpideak.

Laguntzak esleitzerakoan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. loterako (“kirola modu federatuan egiten duten kirol-elkarte eta -klubentzako diru-laguntzak”).

1. Erakunde edo pertsona eskatzaileak aurkezten den kirol-jardueren antolaketan duen esperientzia baloratuko da, gehienez ere 20 punturekin. 4 puntu emango dira erakunde eskatzaileak proposatutako programa garatuko duen kirol-eremuan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 20 puntu.

2. Kirol federatiboa sustatzea baloratuko da, gehienez 20 puntu. Puntu 1 emango da federazioaren lizentzia ordaindu eta justifikatu bakoitzeko (edo eskaeraren urtean ordaindu beharreko lizentzia bakoitzeko), gehienez 20 puntu.

3. Aurkeztutako jarduera-programarekin egiten den euskararen sustapena baloratuko da, gehienez ere 10 punturekin.

4. Aurkeztutako jarduera-programarekin emakumeen eta gizonen berdintasuneko parte-hartzea sustatzea baloratuko da, eta, zehazki, emakumeen kirola sustatzea, 10 puntu gehienez ere.

5. Aurkeztutako jarduera-programarekin egiten den haur eta gazteen kirolaren sustapena baloratuko da (18 urtetik beherako kirolarien partaidetza federatua), gehienez ere 5 puntu.

6. Aurkeztutako jarduera-programan Adikzioen prebentzioa sartzeko baloratuko da, gehienez ere 5 punturekin.

7. Erakundeek ekarpen ekonomikoak lortzeko egindako ahalegina baloratuko da. Udalari eskatutako diru-laguntzaren proportzioa jardueraren guztizko aurrekontuarekiko, ehunekotan adierazita:

- Ehuneko 20 edo txikiagoa (20 puntu).
- Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (15 puntu).
- Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (10 puntu).
- Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (5 puntu).
- Ehuneko 80,01 eta ehuneko 100 artean (0 puntu).

8. Udalaren baliabide tekniko beharra. Diru-laguntzaren xede den jarduera garatzeko udal-baliabide teknikorik edo udal-instalaziorik behar ez duten pertsona edo erakunde eskatzaileek 5 puntu jasoko dituzte.

“Ikastetxeentzako diru-laguntzak” 2. loterako.

Aldundiak koordinatzen duen eskola-kiroleko kanpainan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko puntu bat emango da. Hizkuntza-normalizaziorako ordenantzaren arabera, jarduera hori euskara hutsean egitea eskatzen da.

3. loterako (“dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten kirol-elkarte eta klubentzako diru-laguntzak”).

1. Urteko jarduera-orduen kopurua pertsona bakoitzeko: 0,1 puntu emango dira jarduer-ordua bakoitzeko, gehienez ere 20 puntu.

2. Jardueran parte hartzen duten pertsonen kopurua: 0,5 puntu emango dira jardueran parte hartzen duen pertsona bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

4. loterako (“unean uneko kirol-jarduerak antolatzea udalerrian”).

1. Aurkeztutako jardueraren kalitatea eta egokitasuna baloratuko da, 35 puntu gehienez, honako irizpide hauen arabera:

a. Jarduera euskal kirol tradizionala berreskuratzera eta sustatzera bideratuta egotea. Euskal kirol tradizionaltzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoan modu bereizian garatu den kirol-modalitate oro, gehienez ere 10 puntu.

b. Udalak kirol-arloan lortu nahi dituen helburuekin bat etortzea eta udalerriko kirol-beharrei erantzutea (kirola sustatzea, kolektibo jakin batzuei laguntzea, Udalaren kirol-arloko jarduer-ara-programarekiko osagarritasuna, jardueraren interes orokorra, etab.), gehienez ere 20 puntu.

c. Udalaren baliabide tekniko beharra. Diru-laguntzaren xede den jarduera garatzeko udal-baliabide teknikorik behar ez duten pertsona edo erakunde eskatzaileek 5 puntu jasoko dituzte.

2. Aurkezten den kirol-jardueraren edo antzeko jardueren antolaketan erakunde edo pertsona eskatzaileak duen esperientzia baloratuko da, gehienez ere 20 puntu. 4 puntu emango dira erakunde eskatzaileak proposatutako jardueraren edo antzeko jardueren antolaketan izandako esperientzia-urte bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

3. Aurkeztutako jarduerarekin euskara sustatzea baloratuko da, gehienez ere 10 punturekin.

4. Aurkeztutako jarduerarekin emakumeen eta gizonen berdintasuneko parte-hartzea sustatzea baloratuko da, eta, zehazki, emakumeen kirola sustatzea, 10 puntu gehienez ere.

5. Aurkeztutako jarduer-ara-programarekin egiten den haur eta gazteen kirola sustatzea baloratuko da (18 urtetik beherako kirolarien parte-hartzea), gehienez ere 5 puntu.

6. Erakundeek ekarpen ekonomikoak lortzeko egindako ahalegina baloratuko da. Udalari eskatutako diru-laguntzaren proportzioa jardueraren guztizko aurrekontuarekiko, ehunekotan adierazita:

- Ehuneko 20 edo txikiagoa (20 puntu).
- Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (15 puntu).
- Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (10 puntu).
- Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (5 puntu).
- Ehuneko 80,01 eta ehuneko 100 artean (0 puntu).

5. Ioterako: "Laudiotik kanpoko igoera, sailkapen edo txapelketa faseetan parte hartzea" (50 kilometro baino gehiagoko joan-etorriak).

1. Igoera fasean, sailkapen proban edo txapelketan parte hartzearen ondorioz egin beharreko kilometro kopurua. 0,05 puntu emango dira egin beharreko kilometro bakoitzeko, gehienez 50 punturaino.

2. Erakundeek ekarpen ekonomikoak lortzeko egindako ahalegina baloratuko da. Udalari eskatutako diru-laguntzaren proportzioa jardueraren guztizko aurrekontuarekiko, ehunekotan adierazita.

- Ehuneko 20 edo gutxiago (20 puntu).
- Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (15 puntu).
- Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (10 puntu).
- Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (5 puntu).
- Ehuneko 80,01 eta ehuneko 100 artean (0 puntu)

6. Ioterako ("kirolarientzako joan-etorrietarako beka").

1. Entrenamenduak egiteko denboraldian zehar egin beharreko kilometro kopurua. 0,1 puntu emango dira egin beharreko kilometro bakoitzeko.

Diru-laguntza hau ezin izango dute jaso urteko 24.000 eurotik gorako diru-sarrerara gordinak dituzten kirolariek, ezta kirol-jardueragatik soldata bat kobratzen dutenek ere.

ZAZPIGARRENA. Diru-laguntzen zenbatekoa eta horien kalkulua.

a) Diru-laguntzen zenbatekoa haztatuta kalkulatu da, jarduera bakoitzak balorazio-irizpideak aplikatuta lortu duen puntu kopuruaren arabera, eta jarduera baterako gehieneko diru-laguntzak ezin izango du gainditu jardueraren defizita, ezta eskatutako kopurua ere.

b) Kontuan hartu da, ekitaldi publikoak egiteko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen martxoaren 25eko 44/2014 Dekretua betez, jardueren antolatzaile orok erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar duela. Eskatzaile guztiei gutxienez aipatutako dekretuan eskatutako baldintzak betetzeko beharrezkoa den aseguruaren kostua izango duen diru-laguntza bermatuko zaie, betiere puntu honetako a) letra betetzen bada.

c) Aurkeztutako eskabide bakoitzari erantzukizun zibileko aseguruaren gastuari dagokiona esleitu ondoren, deialdi honetako balorazio-irizpideak aplikatuko dira, eta, lortutako puntuazioaren arabera, eskabide bakoitzari dagokion gainerako diru-laguntza kalkulatu da. Banakako kalkulua egiteko, honela jokatu da: lote bakoitzerako guztizko zenbatekoa proportzionalki banatu da, lortutako puntuazioaren arabera, onartutako aurkeztutako eskabideen artean.

d) Defizita kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko lunchek edo herri-bazkariek eragindako gastuak eta diru-sarrerak.

e) Ez dira kontuan hartuko diru-laguntzaren onuradunei (eskatzaileei, elkarre eskatzaileko kideei eta haien senideei) emandako dietak, ez eta programa garatzeko behar-beharrezkoa ez den beste edozein gastu ere.

f) Antolatzaileei edo hizlariei ez zaie inolako oparirik egingo.

g) Bidaia-gastuak kilometroko 0,29 euroko gehieneko kostuarekin zenbatuko dira, eta ez dira onartuko Laudion egin daitezkeen erosketak egiteko joan-etorriak.

h) Bost loteko diru-laguntzetan, klub eta urte bakoitzeko gehieneko zenbatekoa ez da inoiz 5.000 eurotik gorakoa izango.

i) Sei loteko diru-laguntzetan, gehienez 1.200 euro eman ahal izango dira kirolari bakoitzeko, edo kopuru hori zati klub berean ibiltzen diren kirolarien kopurua eginda ateratzen den kopurua.

ZORTZIGARRENA. Azterlana, ebazpena eta organo eskudunak.

Urteko kirol-programetarako aurkeztutako eskabide guztiak, deialdi honetan eskatzen diren helburuak eta baldintzak betetzen badituzte, Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuan aztertuko dira modu bateratuan.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat detektatu bada, hamar egun balioduneko epea izango da zuzentzeko, errekerimendua jasotzen denetik aurrera. Halaber, hamar egun balioduneko epea izango da Laudioko Udalak prozeduran zehar eskatutako dokumentazio eta txosten osagarriak aurkezteko. Bi kasuetan, epe hori agortuta, eskaera zuzendu ez bada edo eskatutako dokumentazioa entregatu ez bada, eskaeran atzera egingo da, horretarako administrazio-ebazpena eman ondoren.

Hori guztia egin ondoren, eta balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideei buruzko dokumentu bat egingo da, eskabide horiek onartu edo ukatu diren adieraziz, bai eta dagozkien balorazioak ere, diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko formulak aplikatuz. Kultura, Kirol eta Jaietako Zerbitzuko teknikariek egingo dute hori. Balorazio horiek Kultur Garapen Arloko Informazio Batzordeko kideek osatutako Balorazio Epaimahai bati bidaliko zaizkio, azter ditzan eta irizpena eman dezan.

Espedientea eta balorazio-organoren txostena ikusita, alkate-udalburuak Tokiko Gobernu Batzarrari ebazpen-proposamena egingo dio, eta proposamen horrek honako hauek jaso beharko ditu:

- Diru-laguntza ematea proposatzen den eskatzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzaren berariazko zenbatekoa eta helburua.
- Ebaluazioa eta hura egiteko erabilitako irizpideak zehaztea.

Balorazio Organoren ebazpenak, gutxienez, ebazpen-proposamena emateko aurretik adierazitako baldintzak jaso beharko ditu. Nolanahi ere, arrazoitu egin beharko da, eta frogatuta geratu beharko da zer oinarritan hartu den.

Deialdi honetan ezarritako irizpideak aplikatuz, Udalak beretzat gordetzen du aurkeztutako proiektu guztiei diru-laguntzak ez emateko eskubidea, ez osorik ez zati batean, edo, hala bada-gokio, deialdia hutsik uzteko eskubidea.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Epea dagokion deialdia argitaratzen denetik hasiko da zenbatzen, salbu eta Balorazio Batzordeak ondorioak gerogoko data batera atzeratzen baditu.

Diru-laguntza emateko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta errekur-tsoa jartzeko aukera egongo da, administrazio-prozedurari buruzko araudi orokorraren arabera.

BEDERATZIGARRENA. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua.

Diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskabidean agertzen den helbidean jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Urriak 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Gehieneko epea amaitzen bada eta administrazio-isiltasunez ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek ezetsizat jo behar dute eskabidea.

Ordainketa egiteko modua izango da, banku-transferentzia bidez, ordainketa aurreratu bat egitea, behin betiko ebazpena onartzen den unean eta justifikazioa egin aurretik, emandako diru-laguntzaren ehuneko 100ekoa, jardueraren interes sozialagatik, eta alde batera utzi gabe ez-betetzeagatik erantzukizun-eskakizunak edo itzulketa-eskakizunak, hala badagokio.

HAMARGARRENA. Konturako diru-laguntza ordaintzeko bermea.

Bermea eratzetik salbuesteko kasuak ezartzen dituen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 42. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, ez zaie halakorik eskatuko deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradunei.

HAMAİKAGARRENA. Bateriaezintasunak.

Laguntza horiek ematea bateragarria izango da beste edozein diru-laguntza motarekin, Laudioko Udaleko Arlo honek edo beste batzuek eman ditzaketenak izan ezik.

Bateriaezintasun-arau orokor hori, jarduera Laudioko Udaleko beste arlo batek diruz laguntzen badu, salbuetsi egingo da berariaz hala adosten den kasuetan. Kasu horretan, eta beste udal-arlo batek emandako zenbatekoa ezagutu ondoren, deialdi honen bidez emandako diru-laguntza doitu ahal izango da, eta hasieran emandako laguntzaren ehunekoari eusteko adina murriztuko da.

Xede bererako beste finantzaketa-iturririk badagoen edo ez adierazten duen zinpeko aitorpenean, horren zenbatekoa adierazi beharko da, eta, hala badagokio, baita ebazteke dauden laguntza-eskaerena ere.

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

Lortutako diru-laguntzen baturaren zenbateko osoa jardueran onartutako aurrekontua baino handiagoa bada, eman beharreko laguntza murriztu egingo da, soberakinari dagokion zenbatekoan.

HAMABIGARRENA. Kontrol-bermeak.

Diru-laguntza ematen duen organoak egokitzat jotzen dituen administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du, eskatutako datuak emanez eta, hala badagokio, jarduerak egiten diren egoitzetarako sarbidea erraztuz.

HAMAHIRUGARRENA. Ebazpena aldatzea.

Diru-laguntza bat eman ondoren, onuradunak Laudioko Udaleri jakinarazi beharko dio aurkeztutako programari dagokionez garapenean, proposatutako jardueretan, aurrekontuan eta abarretan gertatzen den edozein aldaketa, bai aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak onuradunaren borondatearen mende egon ez direlako, bai diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu direlako.

Behin aldaketak jakinarazita, eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoan eraginik badute, Tokiko Gobernu Batzarrak, Balorazio Organoak txostena egin ondoren eta hilabeteko epean, egindako berrikuspenaren emaitza jakinarazi beharko dio onuradunari, idatziz, eta ebazpen berrian diru-laguntza emateko baldintza berriak eta zenbatekoa adierazi beharko ditu. Epe hori igarota, Laudioko Udalak berrikuspen-eskaerari erantzuten ez badio, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

HAMALAU GARRENA. Diru-laguntzen justifikazioa.

Diru-laguntzaren baldintzak betetzen direla justifikatzeko, justifikazio ekonomikoa eta ez-ekonomikoa aurkeztu beharko da, euskarri elektronikoan.

Justifikazio-agiriak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo diru-laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita. Data horrek ezin izango du inola ere gainditu diru-laguntza eman eta hurrengo urteko martxoaren 31.

Eskakizun horietakoren bat edo batzuk betetzen ez badira, emandako diru-laguntza balio-gabetu ahal izango da.

Laudioko Udalak emandako diru-laguntzaren onuradunari justifikazio-kontuaren eredu ematen badie, dokumentazioa eredu horren arabera izan beharko da.

I. justifikazio-kontu sinplifikatua.

1-5 SORTAK:

1. Legearen 30. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, 60.000 eurotik beherako diru-laguntzetarako, paragrafo honetan araututako justifikazio-kontu sinplifikatuak balio juridikoa izango du diru-laguntza justifikatzeko. Justifikazio-kontu sinplifikatuak informazio hau jasoko du:

a) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla adierazten duen zinpeko aitortpena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen-datarekin. Diru-laguntza kalkulaturako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira. Gastuak fakturen eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuen bidez egiaztatuko dira, trafikiko juridiko komertzialean balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak.

c) Diru-laguntzaren justifikazio gisa aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren zinpeko aitortpena.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Jarduera ezagutarazteko kartel, liburuxka, programa eta abarren ale bat.

2. Diru-laguntzaren onuradun diren erakunde eta pertsona fisiko guztiek justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko dute horretarako emandako epean.

3. Aurrekoa gorabehera, Kultura Garapenaren Arloko Informazio Batzordeko kideek osatutako Balorazio Epaimahaiak zozketa egin ahal izango du elkarteen eta onuradunen artean laginketa bat egiteko. Laginketa horren zenbakia bilkura berean zehaztuko da, eta horiei eskatuko zaie jatorrizko gastuen egiaztagiria aurkezteko, ordainketaren egiaztagiria eta data barne.

4. Faktura jaulkitzeko gaitasunik ez duten pertsona fisikoen ordainagiriak, diruz lagundutako ekitaldian lankidetzan aritzeak eragin dizkion gastuak konpentsatzeko, non egindako lankidetzaren izaera adierazi behar den. Mota horretako egiaztagiria ezin izango dira inoiz 300,00 eurotik gorakoak izan diruz lagundutako pertsona eta jarduera bakoitzeko.

Salbuespen gisa, Balorazio Epaimahaiak kopuru hori handitzeko baimena eman ahal izango du ondorengo kasuetan:

- Lehiaketak antolatuz gero, sariak eskudirutan ordaintzeko.

- Joan-etorrien gastuen kasuan, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko ibilgailu partikularrean egindako kilometroak konpentsatzeko. Kasu horretan, zinpeko aitortpena egin beharko da egindako kilometroei eta jarduera burutzeko beharrari buruz.

Ordainagiri horiek onuradunak adierazi beharko ditu, NANA eta gastuaren kontzeptua barne (joan-etorria edo emandako zerbitzua adierazita).

5. Edozein arrazoi dela medio, diruz lagunduko den ekitaldia antolatzen duen taldeak kudeaketa profesionaleko zerbitzuren bat kontratatu behar badu diru-laguntza eskatzeko eta/edo justifikatzeko behar diren izapideak egiteko, zerbitzu horri dagokion gastua jardueraren gastuei gehitu ahal izango zaie. Kontzeptu horrek ezin izango du emandako diru-laguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 5 gainditu.

6. LOTEA:

6. lotearen kasuan, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1. Urtea amaitzean diru-laguntza eragin zuten inguruabarrak ez direla aldatu dioen zinpeko aitortpena.

HAMABOSGARRENA. Diru-laguntza galtzea.

Diru-laguntzen erakunde onuradunek beherago zehazten diren baldintzetako edozein betetzen ez badute, diru-laguntza proposatu zuen Balorazio Organoak berak, alkate-udalburuaren bidez, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dio, onar dezan, eta ez-betetzeen larritasunaren arabera, jasotako zenbateko guztiak edo zati bat itzultzeko betebeharra, gehi diru-laguntza ordaindu zenetik izandako berandutze-interesa, Udalaren kontura egindako transferentziaren bidez.

Illo horretan, kasu hauek egongo dira:

- Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.
- Diru-laguntza ematea eragin zuen jardueraren helburua osorik edo zati batean ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez justifikatzea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzea.
- Laudioko Udalari ahalik eta lasterren ez jakinaraztea beste diru-laguntza publiko edo pribatu batzuk eman direla, nahiz eta Laudioko Udalak dagokion likidazioa onartu.
- Eta, oro har, deialdi honetan eta diru-laguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, ez onuradunentzat, ez likidazioetan aurkeztu beharreko agirientzat.

HAMASEIGARRENA. Diru-laguntzen zati bat itzultzea eta ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.

Balorazio-organoak diru-laguntzen zati bat itzultzea proposatuko du, baldin eta jardueraren gastuen behin betiko likidazioa jardueraren gastuen hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan bada eta onuradunak ez badu eskatu aurretik berrikusteko. Itzulketa kalkulatzeko, Balorazio Organoak proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko dio aurkeztutako likidazioari.

Itzultzeko gainerako arrazoiei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoa beteko da.

HAMAZAZPIGARRENA. Zehapenak.

Dagokion espedientea ireki ondoren, eta ez-betetzen larritasuna behar bezala baloratu ondoren, Balorazio Organoak Tokiko Gobernu Batzordeari proposatuko dizkio, alkate-udalburuaren bidez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluko II. kapituluan jasotako isunak, diruzkoak zein ez-diruzkoak, diru-laguntzak itzultzeko betebeharretik independenteak direnak. Nolanahi ere, zehapen bat ezartzearekin batera, diru-laguntza osoa itzuli beharko da beti.

Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez badira, baina Diru-laguntzen Legeak edo haren Ordenantza Arautzaileak arautzen ez badituzte, ehuneko 5 murriztuko da bete ez den baldintza bakoitzeko emandako diru-laguntza.

Administratzaileak edo elkarte onuradunen legezko ordezkariak izango dira jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak.

HEMEZORTZIGARRENA. Publizitatea.

Deialdi hau Laudioko Udalaren ALHAOn, Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean edota BD-NSn, iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da, eta ahalik eta gehien hedatuko da gizarte-komunikabideen bidez.

Laudio, 2021eko uztailaren 28a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE